Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Arakil



Aurkibidea

Udalerria: Arakil

Sarrera



Iruñeko merindadeko udalerria. Hainbat herrik osatzen dute: Aizkorbe, Egiarreta, Ekai, Errotz, Etxarren, Etxeberri, Hiriberri, Ihabar, Izurdiaga, Murgindueta, Satrustegi, Urritzola eta Zuhatzu. Argazkian, Zuhatzu herria (wikipedia).

- **Biztanleak**: 952
- **Euskaldunak**: %18,38

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **10**
- Zintak: **12**
- Pasarteak: **40**
- Transkribatutakoak: **9**
- Audioak: **24**
- Bideoak: **16**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Antonio Arraiza Irañeta (1911)

Ihabarren (Arakil) jaioa 1911n. Ama Ihabarkoa bertakoa zuen eta aita Uharte-Arakilgoa.

Pedro Arraras Yeregi (1906)

Arakilgo Murgindueta kontzejuan jaioa. Gurasoak ere Arakilgoak zituen, ama Murginduetakoa bertakoa eta aita Ihabarkoa.

Jorge Escudero Legarra (1906)

Zuhatzun (Arakil) jaioa 1906an. Gurasoak ere bertakoak zituen. Claudia Madoz auzokidearekin batera egin zion grabazioa Koldo Artolak 1986an.

Estanislao Etaio Amoztegi (1903)

Arakilgo Ekai kontzejuan jaioa 1903an. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, Iruñekoa.

Inazio Etxarren Lakunza (1938-2017)



Arakil udalerriko Urritzolan jaio zen eta jaiotetxean bizi da. Aita Urritzolakoa eta ama Irañetakoa. Lau anai-arrebetarik berari bakarrik erakutsi zion amak euskaraz. Esaten duenez, bera, Madotzeko bat eta Ihabarreko beste bat dira eskualdean geratzen diren azken euskaldun zaharrak. Oso gogoko du euskaraz egitea. Bere euskarak Sakanako euskararen antz handia du, baina badu hegoaldeko nafarreraren ukitua ere.

Juan Bautista Etxarren Otamendi (1900)

Arakilgo Urritzola kontzejukoa. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, Azkaratekoa (Araitz).

Mikela Huarte Arraras (1898)

Ihabarren jaioa 1898an. Ama Ihabarkoa bertakoa zuen eta aita, berriz, Uharte-Arakilgoa.

Claudia Madoz Huizi (1904)

Zuhatzun (Arakil) jaioa 1904an. Aita Zuhatzukoa bertakoa zuen eta ama. berriz, Aresokoa. Jorge Escudero auzokidearekin batera egin zion grabazioa Koldo Artolak 1986an.

Jesusa Ongai Huarte (1906)

Satrustegin (Arakil) jaioa 1906an. Aita Satrustegikoa bertakoa zuen eta ama, berriz, Irañetakoa. Josefa ahizparekin batera egin zion grabazioa Koldo Artolak 1985ean.

Josefa Ongai Huarte (1910)

Satrustegin (Arakil) jaioa 1906an. Aita Satrustegikoa bertakoa zuen eta ama, berriz, Irañetakoa. Jesusa ahizparekin batera egin zion grabazioa Koldo Artolak 1985ean.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. Inauteriak Murginduetan

- **Hizlaria(k)**: Arraras Yeregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: AKL-002/001
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:27
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- **Laburpena**: Inauterietan ze ohitura zegoen Murginduetan.

Transkripzioa
- Karnaala, an e berrix, karnabal saten giñun ta...
- Eta ateratzen zineten etxez etxe edo?
- Bai, orduen bai.
- Eta zer egiten zen? ea, konta ezazu pixka bat...
- Or, paseoan? pues e...
- Zerbait jantzi edo?
- Bai, jartzen tzen e... koño, bah! batzuek ee... zeak, anmakomean e... falda o... zar tzek ee, sonbreroa? ta... hala! beste beix e... kantzontzillo luze atzuk, ta kamixetaekin? oi bai, oi, nik ez, ni eni(t)zen, ni ez alleatu ortaa, ez.
- Ez, e?
- Ez, geatu nitzän. Ta, te kendu zeen zeatik orduen... Murginte saldu in pa izän, ta... familiek, alde in baizuten, ta ez giñen geratu, iru famili bakarrik ta iru familiekin ya etzeon, olako kostunbreik. Oiek beiz? ta egittez etxe? etxez etxe? gu aspaldi etxea galtzen nonbat au zen-ta? arrekën beste... egun batzek? o sea, formatzen tzen kuadrillä, mutil-kuadrillä, bost o sei o zortzi o... dena-denak unittuik tä denak... etxe (b)atëa fan? ta an, jan.
- Orduan etxeetan eskatzen zen, ez? eta zer ematen zuten?
- Koño, pues, bah! säjenario (?) egunean-da, txeri-gelte urdaie, o txixtorra, o arrotzeak; eta aiekin e...
- Ez zen eramaten gerren bat edo...?
- Bai, gerrena eamaten tzen, gerrene ta geo... kordeona, musike, jeje! gerrena ta... xaskie, xaskie arrotzeak, eje! biltzeko.
- Eta afaria non egiten zen?
- Afarie? pues e... mayordomoas, nola zeatzen tzen? t'ar-, itxa, arren itxan!... ark gisatu te denak jan, gastu guzia? dibiditzen.
- Eta akordeoiarekin, ba musika bakarrik...

- Aek, juerga, kordiona!...
- Zer musika zen, hola... fandango, arin-arin eta gisa horretakoa edo modako kantak?
- Modako kantak!
- Eta jendeak kantatzen zuen?
- Bai-bai-bai...
- Oroitzen zara pixka bat zer kantuak ziren?
- Ez, ez... ez jauna, akordatzen tut; pixkan akordatzen neiz, ez...

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. San Juan bezperako ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Arraras Yeregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: AKL-002/002
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:02:27. **Bukatu**: 00:03:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: San Juan bezperako ohiturak Murginduetan. San Juan suaren gainetik salto egiten zen eta esaldi bat esaten zuten.

Transkripzioa
- San Juan bezperan zer egiten zen? zerbait egiten zen?
- San Juan bezperan e... sub itten zen; bakotxak bee atarien... parëan? subi ta, famili guztie, xu artaa, fakotxak ee... bee itxan familie su aik-, aikin, kea gogor artzea, je! ta geo dena an artrixe (?)... ori bai.
- Salto egiten zen?
- Bai, xal-, saltatu, suben... llama an artute; ori bai.
- Eta zerbait esaten zen handik salto egitean? haren gainetik pasatzean? ez?
- Ez, ez-ez-ez-ez...
- Ez? sarna kontua dela-eta...
- Ori gero ez akordatzen.
- ‘Sarna fuera’ edo...
- Ah, guai ere! gue abuelak-eta ori zautu zuten: “Giri-giri martxa... sarna fuera, ogi t’ardo Nafarrora”; ori bai, oain...
- Eta hasieran nola esan duzu? ‘gigi-giri martxa’?
- Giri-giri martxa!... xarna fuera! xarna, nunbaitt ee xarnez iltzen ta...
- Ta, Nafarrora...
- “Xarna fuera, ogi t’ardo Nafarrora”. Ogi t’ardo eskatu ere, je!... oi ga-... gue amak eta oiek bai, baño guk ez.

2.2. Kanpai klaseak; hil-ezkila jotzeko erak

- **Hizlaria(k)**: Huarte Arraras, Mikela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: AKL-003/001
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:19
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- **Laburpena**: Hil-ezkilak bi eratakoak izaten ziren, hiltzen zena adinekoa edo umea izan. Beste kanpai klase batzuk. Arruazun lehiaketa egiten omen dute ezkilak jotzen.

Transkripzioa
- (Lehengo batean) esan zenuen, kanpaiak (ezkilak) nola jotzen zituzten...
- Ah, ezkille?
- Bai, elizakoak, hiltzen zelarik gizon zahar bat edo hiltzen balin bazen haur bat eta...
- Ah, bai, gizon zar bat iltzen tzënian? ta, ola... ya mötille ere bai: tin-tan, ta, aurrek txiki ziren? ttin-ttan, ttinttan, ttin-ttan... alegreaö.
- Eta beste modurik bazen?
- Ez, ez, ez, ez; bi, bi... bi modu, bai, bi modu.
- Eta balin bazen uholdea edo, inundación edo sua edo...?
- Ah! sue zenian? ezkille... göotik: ban-dan-dan-dandan!... an, zen guzie... ola: dan-dan-dan-dan-dandan-gun-dan-dan, geldittu be ya, ezkiko, (zuzenduz:) erriko ezkille? orein?... eztoke... soñuik beñon, ezkille zen izugarrisko... ona, ta orei’re... nik uste nuen ezkillek etzeela... etzeela gastatzen ta ezkillek ee, soñue juan, juan itten dakiote!... oin eztokete soñuik, e? juan den urtian ez, aburra(g)o, oin dela bi urte juan... juan giñen? an aldamenekuaki(n)? ta beala erriko kontuek atra giñuzen ta esan nion nik: “Ezkillek ee kanbietu dee orein –esan nion nik– eztokete soñuik” eta, “Egie da, eztokete sonuik”. Ta gëo, tor nitzenian, emen ee, aittu nuen, ezkillek ee galtzen dutela soñuä; ta... konpondu in biar dee, ta eztute konponzen ta eztokete kasi soñuik; len? ezkil betzek, Jesus!... aitzen tzeen, nik eztakit noaiño, ta orin oso motela, dao... Klaro, apeza’re... prexakan ibiltzen da...
- Esaten dute ezkila onak Arruazukoak direla...
- Arbazukuak dee?... bai, iez in tzuten e... apuste!
- Bai, konkurso edo apostu edo...
- Konkurso, bai, bai... ta ni arrittuik, gue errikuak ee, nola etzuen ee... Jesus! ezkil betzeök!... Gëo, mutillek o, bai... prozesioak itten zittuten Ama Birjiñen egunian ta... eztakit erri guzie barna, Ama Birjiñekin? te, ezkillek... mira: bandiatzen bezeleixen, bi ezkil?, bandiatzen bezeleixen jotzen zittuten, ta zen ederki! ta oräin ez, oräin, eztokete soñuik, oso soñu... tristea dokete; ta, eztu iñok kasuik itten... eztu iñok kasuik itten. Apeza esan duune... Iruñen daö, ta... tortzen da, astëan bi egunes, iendian maten du meza prexaka, bi dö iru erri badauzki, meza emateko, ta eztoke... eztoke denborik.

2.3. Konjuruak zertarako eta nola egiten ziren

- **Hizlaria(k)**: Huarte Arraras, Mikela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: AKL-003/002
- **Iraupena**: 0:04:41. **Hasi**: 00:03:19. **Bukatu**: 00:08:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Erauntsi arriskua zegoenean apaizak konjurua egiten zuen. Konjuruaren inguruko azalpenak.

Transkripzioa
- Eta ekaitza eta... ‘ekaitza’ esaten da? tempestad, tormenta...
- Ekaitza ez...
- Edo erauntsi edo, nola da?
- Bai, erauntsie... bai.
- Konjuroak-eta egiten ziren?
- Konjuroak? bai, asko!...
- Erauntsia izatean edo?...
- Konjuroak? arri eta, ola... amenazätzen tzuenean? ittin tzuen apezak konjuroa; ta, konjuru itten giñuzen, espera... Aszensio-bezperan, iru egunes, juaten giñen, errotaa? ta... Konjurotoki, ta... Kanposantue, iru; letaniak ee, leitzen, kantatzen: Santa Catalina, ta Santa... Jesus! oietatik!... Jexux! latin bait’ere, e? zenbaitt aldis, en latín... sí.
- Eta konjuroa nola egiten zuen apezak?
- Pues, meza beño len, juaten giñen, bagiñen kon-, bagiñakien konjuroa zela ta, elizetik, juaten giñen elizia, ta elizetik, atratzen giñen prozesioan; apeza? bi monagilloak bee... nola esaten diote orai? eztakie akordatzen...
- Gurutzearekin?
- Jesus! nola esaten dakiote eri?... bueno, bi monagilloak? ta sakristaue, ta denak prozesioan. Letania, letania kantatzen bidian, ta gero, alleatzen giñenian lekue? apezak an itten zittuen bee errezoak, konjuroak, alde batia, errezatu, gio buelta, beste aldia, lau aldetaa, ta beikatzen tzuen... egun betes? Konjurotoki, beste egunian? juaten giñen errot ondoa, ta beste egunian? errien... errien, a esto... erritik?... garrenian, dana, erri-errien ezkiñen, o eskin betian edo bestian, ta an itten zittuen bee errezoak, eta... ya está, oriek zeen konjuroak, ta bidean ee... bidean e letanía, letanía de los santos: Santa Catalina, San Silvestre, ta nik? ze dakit zer...
- Zertarako konjuratzen zuen?
- Kanpoak-eta guardatzeko...
- Harritik eta?
- Arritik eta, bai, guardatzeko.
- Erauntsiak eta...
- Erauntsiak... guardatzeko; eta mala tenpestat, e?
- Eta konjuratzean, zer esaten zuen?
- Letaniak ee... erraz, ezta? guk, kontestatu: “Ora pro nobis”...
- Bai, baina, zer beste?
- Besteik etzen, ori.
- Konjuro egitean zer esaten zuen?
- Letania!
- Hori besterik ez?
- Letania konjura, santu guziek atratzen zittuen: San Silvestre, Santa... Jesus! Santa Se-, e? bai, banakin nik ee... dena!
- Baina letaniak (kantatu), besterik ez...
- Letaniak? bidian letania ta gero an, errezatzen zuen, bee... errezoak!
- Hori, hori; zer zen errezu hura?
- Nik eztakit zer, latin, en latin e... latin ta, buelta alde batia ta buelta bestia ta, berak ee, apezak ee errezatzen zuen ta, bee isopoakin uste dut, bee isopoakin? ta...

2.4. Ukuilu, ur eta alorren bedeinkapena

- **Hizlaria(k)**: Etxarren Otamendi, Juan Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo

- **Erref**: AKL-005/001
- **Iraupena**: 0:04:58. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:04:58
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: San Anton eguneko bedeinkapenak. San Gregorio egunean apaizak ura bedeinkatzen zuen eta alorrez alor joaten ziren bedeinkazioa zabaltzen.

Transkripzioa

- Eta baita ere, ez dakit iraztorra edo zer beste erre, eta haren kea ukuiluan zabaldu edo... hori noiz edo nola izaten da?
- Ah!... ori? San Anton.
- San Anton? aber, hori nola da?
- Ba... lemixko? makil betzuk eta, zea batzuk, elizea eaman; oain ya ezta itten, e? eamaten tzeen, ta, apezak bedeiketu, ta geo? ore’re ez, sekatu lemixiko, ta urrengo urteako. Ta, San Anton goizian? su in? ta, puske aiek? ya erre tzeen garaien? artu, zartai zar batian, zartagi badakizu zer den? zartai zar batëan? ta, okoillun buelta eman, animele guztiei, muturretik pasatuz, jeje! färres... oe, esainko zuten: “Obe pentsu ona ematen baneek... ekia beño”.
- Obe pentsu ona?
- “Pentsu ematen baneek”, animeliak esainko zutela: “Mejor si me das buen pienso que... que el humo”... e? kostunbre oi... zautu nuen nik. Ta, beste kostunbre at bazen? San Gregorio, maietzean, beatzigarrenean; ta, urea bedeikatzen tzun apezak, ta ur oe artu? katillu (b)etian o eltze (b)atëan? ta gue ama? alorres alorres, ta gure ama bezela, beste guztiek e bai, ta, artatik gari onak tortzeko? eta, Jaingoikoa(k) libretzeko... eauntsi txarres? ta olako, orazioaz itzulkin? ta, denai buelta ematen tzion. Ta, azkenian? sobratzen tzena... “Iñok ezpadu siñestatzen? o balën bada, bakarren bat siñestatzen
eztuna? arren gariek ere salba daitzela”, ta, botatzen tzen... sobratzen tzena; buelta manderëa!
- Polita, e?
- Bai; oin ya, gauze oiek gal-, pasatu dee.
- Apezak ez zuen inoiz alorrak-eta bedeinkatzen?
- Baita ere! bai.
- Eta baita ere saguen kontra eta...?
- Baita ere, bai, bai, bazëren, bai.
- Hori noiz izaten zen?
- Erri guztietan? gurutzeak tzeren, mendin; emen ee bazeen, elizetik beida o? gurutze at, tzuresköa: lau makil, ola? an eoten tzen ta... zer feri-, fetxetan, eztitzut seguru esaen... beti’re, Paskoak...-kin, torritzen tzen jai ori, o... fest ori. Eun artan? asi bear tzeen, rogatibek, rogatibek etsaten tzioten gauze oiei-ta, e? ta... apeza artu? ta erri guztie juaten giñen gurutze artaa? ta apeza, orduen, beikatzen zittun kanpöak, mendik eta... denak, bai. Ta ya, pixkepixkeka gurutze oik denak, kendu dëe. Emen bazen bat, or beste at, ta, erri guztietan bazeen bi o iru, beño, oain, iñok e, iñok eztu... señaleik maten ya.
- Eta nork kendu ditu, edo?
- Ara! ez... ori, ori, kostunbriak juan dee ta, iñok eztio, eztio kasuik in. Oain e, esan dute, bai, Lunbierren, sekuleko desastriak in tutela; ba omen tzeen kru-, gurutzeak eta gauzäk, ta... denak puskätu ta, elizen ee zerbaitt in dute.
- Bai?

- Bai, eunotan e? ni... biar, izeinko ittu amabost eun, la... peregrinación de los... enfermos? Jabierren eondu nitzen, ta, Lunbierren ee bai, ta, orduskeos? periodikoan leittu ut, desastriak in ttutela, elizen? ta alako... lekutan, gurutzeak bazeela? ta ixkrizio ttar batzuk e paretetan in ttutela... Bah! mal sin provecho; nai ezpaduk, utzak!
- Eta apezak, hori bedeinkatzearekin batera, ez zuen zerbait egiten arratoiak edo saguak edo...
- Bai-bai, bee... orazioak bazittun, bai: “Líbranos del...”, ta badakizu? nik ezt-, ez nittun gauzä, guk goguan artu beño... ba ez! bazittun gauze bakotxak, bee... orazioa bazun, bai. Gu pozik e juaten giñen! ta gañea, juaten tzeen guztiei? gosari pixkuat eamaten giñun? ta, ogi t’ard(o)a? nai giñun guztie, eun ortan, bai.

3. Herria, azpiegitura

3.1. Haur denboran hamar familia Murginduetan

- **Hizlaria(k)**: Arraras Yeregi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: AKL-002/003
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:03:50. **Bukatu**: 00:05:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- **Laburpena**: Bera haurra zenean, hamar familia bizi ziren Murginduetan. Murgindueta Arakilgoa da. Inguruko herri eta auzoak.

Transkripzioa
- Zu jaio zinenean zenbat familia ziren Murginduetan?
- Jaio nitzenean... amar(s)... amar(s).
- Joño! eta denak joan dira, gutxika-gutxika ateratzen eta orain bakarra ere ez...
- Ta arreskeo saldu ze dana, da segi, xaldu zen, bestela ez zebille ta... akabos.
- Eta hona (Ihabarra) etortzen zineten dotrinara eta hola...
- Ah, bai, dena, dena, aunitz.
- Udalaren aldetik, ayuntamentuaren aldetik, zeinena da? Irañeta aldekoa ala Ihabarkoa?
- Ez, Iabarköa.
- Beti izan da? zuk beti ezagutu duzu, ezta? Murgindueta barrio txiki bat balitz bezala, e?
- Bai-bai, bai Yabar... Yabar e bai; emen, ola... ayuntamiento ori? printzipala da au, ballen, balle baita.
- Ah, Arakil, Arakil, bai...
- Arakil, bai; ta geo? bakotxak bai, alkatia ta ori? ya erriena, administratzeko, ta zer beño? ta Murginten e bai...
- Orain Irurtzunen dago, ezta?
- Ez! e...
- Eta hemen, herri bakoitzean izango da kontzejal bat edo horrelako zerbait...
- Konzejal, bai, baia aparte.
- Baina Murgindueta beti izan da Ihabarko parte bat, ezta?

- Ez-ez, Murgintek ee bear tzöken igual alkatea, bai; pedagono o... sateute, alkate ped-, alcalde pedágono o así.
- Bai, edo pedaneo edo.
- O peraneo, ore, bai.
- Baina Murgindueta da Arakil?
- Bai, bai, Arakil da, bai.
- Irañeta ez...
- Ez, Irañeta es villa.
- Murgindueta bai...
- Murgindeta bai, Irañeta billa... Irinteaño; kuña bat, aldeo? baño... bueno, arriek? mugea... balleen mugik? Arbaitea, Irañeta o ta Murgintean... zea, mugik.

4. Euskara

4.1. San Donatora joateko ohitura; inguruko euskaldunak

- **Hizlaria(k)**: Etaio Amoztegi, Estanislao
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: AKL-004/001
- **Iraupena**: 0:06:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:06:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Abuztuaren zazpian San Donatora joaten ziren herritar guztiak, bazkaria hartuta. Inguruko kontzeju eta herrietako euskaldunak. Hainbat kontu.

Transkripzioa
- Eta San Donatora, ze egunetan joaten zineten?
- Ah! aoztun... zazpi o amaika? zazpin, zazpin, aboztun... zazpin.
- Eta konta nola biltzen zineten eta...
- Ah!... len meza bat, an, ateratzen zuten.
- Bai baina ze ordutan ateratzen zineten edo?
- Len e... goixik samar, urruti da ore!... an bostetan o ala, alakon bat.
- Argitu gabe?
- Ta an... argitziako, alleatu ta, Irañeta bakizu nun den? t'andik puerto ori, andik, faten giñen, errotatik, bai. Lenao jendia... ibiltzen tzen, bai.
- Eta asko joaten zineten?
- Bai, erri guzie.
- Apaizarekin edo?
- A-, oñez, oñez!... lenago oñez ibiltzen tzen, ta geo, emen, San Urbano ere badao, orrea etorri giñen beis, bein o bi o... igandian o, bai. Ala.
- Behin izan nintzen San Urbanon eta tenderete asko...
- Bakizu, bai, ori nun den?
- Bai, Gaskun... tenderete asko-eta paratzen zuten orduan...
- Gero umerri eta... or, erreta, majo; t'afariak eta kartze zuten saltzea, ta gëo, piketzeko, zeak, maillukek, ere bai. Orain, ora(i) akatu da dena, orai ya... orain dena, makineria-ta da? ta... ya segak eta, fan dee. Lenao, segan? rau, rau, rau, rau...
- Eta San Donatora joaten zinetenean apeza joaten zen zuekin?
- Bai, apeza, bai, gue errikoa? faten tzen.
- Eta eraman behar izaten zenuten bazkaria?

- Mandato, mandato artu zuten? da, beor bat o artu? ta ematen tze(n).
- Zertarako mandoa?
- Bea iota fateko!
- Bai, e?
- Joe! bai-bai, oñez, bai...
- Zuek oinez baina bera mando gainean, e?
- Bai, bai, bai, mando gañen.
- Eta bazkaria eramaten zenuten?
- Bai, bazkaria bai; eta guk puske... puske amootan ta, an... ardoa pixkuat, Uartekoak ogie erosten zuten? ta edan ta fuera! andik itxea beis. Eguardiko kasik buelta, bai. Ta, ortik, Ollotik e, faten da majo, bortu ori; Iltzarbe bakizu nun den?
- Bai.
- Ortik, sartu? ta, or kasi daö... oso eroso fateko, zeil xalara, (zuzenduz:) zelei xamarra? andik aldapa aundi dao, bueltatik ola? joe...
- Zeil xamarra, zail xamarra esan duzu?
- Or... zelaie, zelaie xamar.
- Ah, zelai; zelai zabala, e?
- Zabal-zabala ta... Ollotik, ortik? faten zen aixeao; beño guk, atzeakatu bea giñen, andik gañetik erosoau juateko, bai.
- Ezagutu duzu euskaldunik Ollaranen? Ollo aldean?
- Ah, bai, Ollon?... ez, or-or ez.
- Eta Izurdiagan edo Errotzen?
- Or e, or e gutxi a. Ya... ya Uarten ta, ala, or, or ezta galdu dela-dela, ez? Uarte-Arakil ta ori.
- Uharten badira batzuk eta Irañetan ere bai...
- Bai, baya, gutxi egoin dee, bai, oiek. Gazteak e biñipin bagintze bai, or, Irinten.
- Eta Ihabarren ezagutzen duzu euskaldunik?
- Yabarren ez; ya zarrak il tee ta, gazteok...
- Hemen, Iruñean, ez da izango bateonbat, Ihabarkoren bat?
- Bai, bai, badaö bat.
- Bai? eta euskaraz dakiena?
- Bai.
- Nor da?
- Ori... (familiarteko bati:) ¿cómo se llama ése? ¿tú no te acuerdas? ella... el de la puchinera... Martín se llama él, eztakit ze... apellidoa nola dauken, Iribarren naskiro ok e...
- Martin Iribarren?
- Bai.
- Ihabarkoa da?
- Yabarkoa ez, ortik... or erri koxkor badago...
- Ah! Berasaingoa?
- Berasaingoa, bai.
- Bere andrea da Ihabarkoa, baina andreak ez daki euskaraz...
- Aera fan tzen, aera fan tzen ori, ezkontze-, ezkondu gabe ian tze, Martiñ ori.
- Baina emaztea da, andrea da Ihabarkoa, baina ez daki euskaraz.
- Eztaki orrek?
- Ez-ez, emazteak ez, andreak ez; Martinek bai.
- Orduen ezautzen duk Martin...
- Bai, bai, bai.
- Ah, bada eman daö ere.
- Badakit bai, izan nintzen egun batez berarekin.
- Bai, ya! t'oiek e zarrak samarrak dee, ya. Ya kan- emen euskeraz ya...
- Zuk ikasi zenuen kantu bat, esaten duena "sentitzen zaitut, sentitzen... ur

berria, or goiena”...?
- Ah, Urgoiena, Urteberri, U-...
- Bai, hori nola da?
- Ori Urteberritan kantatzen zuten.
- Eta oroitzen zara nola?
- Ori, ya... enaiz akordatzen e: “Urteberri egun ona”... Orai, eztakit, eztakit zeñek dakien, ya... eztakit, dena ta... faltatzen die lenago zarrak.

5. Iritziak

5.1. Ardoa garraiatzen zuen gizonari gertatutakoa

- **Hizlaria(k)**: Etxarren Otamendi, Juan Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: AKL-005/002
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:04:58. **Bukatu**: 00:07:47
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Zahagietan garraiatzen zuten ardoa inguru guztietan. Gizon bati mandoarekin ardoa garraiatzen ari zela gertatutako pasadizoa.

Transkripzioa
- Ba... zagiek, zeen, pellejos, auntze-larrue? kendu? ta ardoa trasportatzen ibiltzen tzuten, esos pellejos, de diez litros...
- Hori non?
- Emen!... emen, tierra ontan denëan, ta gi(t)zona batzeen, mandöakin? Estellet-, Estella aldian, artu bi zagi oietatik? unos... obei bet kantaro o ala? –kantaroak, ontze litros setenta y siete zentilitros, tzun– obei bet dekalitro o ala? ta torri eta saltzen zittuten, ta, orko erri ortan? zubi oe pasatu ta oneta? loyatz, ordun karretereik etzen.
- Zein da herri hori?
- Erroz; zubie pasatu ta loy aundie! ta, mandoa? bee zagi, bee kargaki(n), an sartu men tzen, ta, gizona... ez! ez sartu nai loyea, bea’re atrapatuko zela? ta mandoa tripeaño loyes beteik? ta azkeneko, ausilio! eskatu men tzuen. Ta, errota, goiko eskiñen or dago, oi, iriñe itteko ta, errotari, errotarie, aittu men tzun ta: “¿Qué andas Joxe Miguel?” - “Pues, aquí, el macho entrar en el barro y... no puede sacar. A la Virgen de Oskia... tres pellejos de vino, a San Miguel? un pellejo de vino”. A no sé cuántas... - “Pero chico, más que lo que vale el macho y la carga vas a ofrecer” –euskeras– “Beño, gizona! mandoak eta... ardoak balio duten beño geigo eskeintzen” - “Ah! loyetik atraik baleo mandoa?... or geldittuko lizke eskañiik”.
- Ez zuen kunplitzeko gogorik, e?
- Mingañez!
- Eta San Migel eta hori ere, euskaraz esaten zuen?
- Bai.
- Nola, nola esaten zuen?
- “Migel Aingerue”.
- Bai, ta aber, atera zitzaion, atera zaikion beste gizon bat, ez?
- Errotarie.

- Errotaria, eta zer, nola esan zion?
- “Joxe Migel, ze ari aiz?”, ta, “Emen, mandoa sartu zaikiet loyen? ta, etzin a-... etzinik ta, ateako ta, olako santuei, Ama Berjiñe Oskikoai, anbeste karga olio eskañi ziotet, San Migel Aingeruei e bai, ta, olako santuei’re bai, San Donatuei’re bai, anbeste” ta, “Beño, erua o zer yago i? mandoak balio du, mandoak eta kargak balio dun beño, olio geigok (e)karri...” - “Ah! mandoa loyetik atreaik baleo!”...

6. Lanbideak

6.1. Karobien inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Etxarren Otamendi, Juan Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: AKL-005/003
- **Iraupena**: 0:05:13. **Hasi**: 00:07:47. **Bukatu**: 00:13:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak
- **Laburpena**: Kisu-labeen eta galtzina-labeen (karobien) inguruko azalpenak. Berdin egiten ziren, baina harri-klaseak bereizten zituen.

Transkripzioa
- Kisu-labeak eta, egin izan dira hemen?
- Bai.
- Zuk egin duzu edo ikusi duzu egiten?
- Nik ez, beño... galtzin-labëak? bai, galtzin-labiek.
- Horiek zer dira?
- Zulo etzuk ongi lurrian in? ta... gero, ori e? azpitik zulu at utzi? ta, gora erä... nunbai(t), erdi-erditik? zulu at gora; ta, arris bete? arriek ekartze itten ber zun, e? kalitze ezpatzen ematen? etzen ona, ta arris bete zul ue? ta azpitik, sue man? tä igual, zortzi o amarr eunes, suten euki? ta, erretzen tzen! ta, gorraz, gorra-gorra itten tzute, ta, kaltziñä, areki. Ta kisue igual, estilo... bera; kaltrazie izen biar tzun, arri-klasea, bai; bat zen kixuendako? ta beste at galtziñendako. Galtziñe, badakizu tzer den, ‘cal’, ‘cal y yeso’; una pa ca-... para cal, había una clase de piedra? y otra...
- Bai; segi, segi, segi euskaraz, bai...
- Ta beste klasian? galtziñentzat, bai. Ta, putzuek, ei zuen, tze? lau-bost metro bai, lurrian, ta azpitik? tunel bat bezela?... lemixko? sue, sus bete, ta ya... sue erre tzen garaien? berriz sartzeko? zea... itten tzaitiko ez jetxi, berriz sartzen tzioten, ta, zortzi-amar eunes, suten egin biar tze, ta, eh! kixkiltzen tzen! dena, ta, gorr ora gora itten tzen, zuri-zuri galtziñe, ta kixue iluntxëago...
- Baina egin, berdin egiten zen bata nola bestea?
- Bai, bai, bai, lana? igual zuke.
- Harria zen diferentea...
- Bai.
- Eta nondik ekartzen zen harri-mota hori?
- Or, goit(t)i ortan; Arramaska saten diote, mendi bet? ta andik kartzen (t)zuten.
- Arramaska?
- Arramaska, bai, orbel aietan bera da ta... ta, emen? tzer? kilometro erdi bet eonko da, galtzin-labetaa, Pinanzin dia bezte, bi... bi labe andi! ze? izinko zittuten arrek, ayek... lau metro, de diametro, bai, bakotxä(k), ta

alture seion bat metro? eta je! eerki bete arris! beño, beti, tximiñie ger-, erditik uzten, ta, oi bete? eurrekin? su man? ta, anbeste eunes? juntatzen tze(n), galtziñe juntatzen tze(n), bai.
- Eta harria...
- Arri? karri biar tzen goittitik.
- Arramaska horretatik?
- Arramaskätik karri.
- Hori galtzine, eta beste harria egiteko?
- Ore ez, falsuago zena, kixuentzat illunao, tufa saten diogu, tufa e... arrie, galtziñena? fiñe, beño beste oi... bastuago.
- Eta hau nondik ekartzen zen?
- Or, ondo-ondotik, bai, beste menditto atetik? ortik.
- Nola du izena, beste menditto horrek?
- Eularbileta, Eulerro...-bileta.
- Eta hiru-lau edo sei egun egon behar tzuen, e?
- O geyo, e? ori fijo eztiut esaiñen, biño... Erreroak? berotzen duen bezela, burnie? ola... berotu biar tzen a, bere... lazköa fatzu(k).
- Eta lan horretan ari zenak zein izena zuen?
- Caleros...
- Eta euskaraz? kare-egileak edo?
- Galtzingillëak.
- Eta besteak? kisu...
- Kisu, kisus... kisuille, kisuillea.
- Eta hemen, herri honetan baziren, e? horretara dedikatzen zirenak...
- Ala, ala esaten tzuten, bazerela; nik ez nittun (t)zautu.
- Baina labe horiek bai, ezagutu dituzu...
- Lan ore bai, lan oiek ezautu dittut.
- Eta ez zen arriskurik? mendia... erretzen hasi edo?
- Ez, peligroik etzen.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Amak berarekin soilik egiten zuen euskaraz (AKL-001/003)

Aita Urritzolakoa zen; jaio zen etxean bertan hil zen. Ama Irañetakoa zuen. Anai-arreben artean euskaldun bakarra da Inazio, amak berari bakarrik egiten ziolako euskaraz. Familiako beste kideren bat bazen, erdaraz egiten zuen. Lau senide ziren.

2. Irañetako eta Urritzolako euskara (AKL-001/005)

Bi herrietako euskara antzekoa dela dio Inaziok, eta bere euskarari "barrankesa" deitzen diotela, Sakanakoa, alegia. Etxarriko eta Lizarrako euskara ezberdina dela ere aipatzen du.

3. Eskualdeko azken euskaldun zaharra (AKL-001/007)

Beste eskualdetan gehiago badaude ere, eskualdeko azken euskaldun zaharra da Inazio. Azkarateko morroi bat izan zutela kontatzen du.

4. Inazioren familia (AKL-001/009)

Lau biloba eta bi seme ditu Inaziok.

5. Ihabarreko euskaldunak (AKL-001/010)

Ihabarren euskaldun familia bat dagoela kontatzen du Inaziok pasarte honetan. Goldaratzeko euskaldunak eta haien izaera ere aipatzen ditu, baita Irañetako euskaldunak ere.

6. Uharte Arakilgo lantegiak (AKL-001/011)

Uharte Arakilen sortutako lantegien ondorioz euskara asko galdu dela kontatzen digu Inaziok. Bestetik, arbizuarrak oso euskaldunak direla esaten du.

7. Inguruan denak gaztelaniaz (AKL-001/012)

Euskara entzuten zuen une bakarra amarekin izaten zen; gainontzekoan, eskolan edo lagunekin gaztelaniaz egiten zen dena. Lagunak harritu egiten ziren Inaziok idiei desberdin (euskaraz) deitzen zielako.

8. Urritzola eta Madotz herriak (AKL-001/014)

Gainontzeko herriak baino ederragoa iruditzen zaio Urritzola Inaziori. Madotz herria ere aipatzen du, bertako euskaldunak baititu gogoan.

9. Logroñon 4 hilabetez (AKL-001/017)

Gerra garaian Logroñon ibili zen Inazio, ondoren etxera itzuli zen. Oso gaizki pasa zuela kontatzen digu, depresioak jota.

10. Aita Afrikan izan zen gerran (AKL-001/018)

Herriko bizilagunak gauez irtetzen ziren Gerra Zibilean herria zaintzera.

11. Makien oroitzapena (AKL-001/019)

Makiez oroitzen da Inazio, II. Mundu Gerran alemanen kontra borrokatu eta Frantziara ihes egin zuten soldaduez. Hauek Gerraren ondoren ere borrokan aritu ziren, Francoren aurka. Mendietan ezkutatzen baziren ere, asko hil egin zituzten. Inaziok gauez janari eske ibiltzen zirela gogoratzen du.

12. Makiak ogi eske (AKL-001/021)

Behin, artoak zuritzen ari zirela, Makiek atea jo zuten ogi eske. Asko eta asko hil egin zituzten.

13. Inazioren haurtzaroa (AKL-001/022)

Txikia zenean pozik bizi zela gogoratzen du. Lau idi zituzten, goldea egiteko. Goldea burdinezkoa eta zurezkoak zituzten. Idiak hezten zituzten goldea eurek bakarrik pasatzeko.

14. Gariz beteriko Nafarroa (AKL-001/024)

Garia asko ereiten zela kontatzen digu Inaziok pasarte honetan, tranktorerik gabe, jakina, segaz. Hasieran garia multzokatu, eta ondoren larrainean ibiltzen ziren.

15. 800 kiloko idiak (AKL-001/028)

Uhalak eta uztarriak izaten zituzten idiek. Lasoa egiteko ere erabiltzen zituzten idiak. Behorrak ez zituten lanerako erabilten, bakarrik larrainerako, arinago ibiltzem baitziren.

16. Amarekin egiten zuen ogia (AKL-001/031)

Etxean egiten zuten ogia zatikatu eta labean sartzen zuten masa

17. Ihabarren, San Juan eguneko errituen eragina San Antonekoan (AKL-006/001)

Ihabarren, San Juan eguneko errituen eragina San Antonekoan. Apaizaren bedeinkazioak. San Juan suaren inguruan zer esaten zen. Sortak.

18. Gabonetan egur bat erretzeko ohitura eta afari berezia (AKL-006/002)

Eguberrietan, afaltzen hasi baino lehen egur handi bat botatzen zuten sutara, "Jainkoarendako". Gero beste txikiago batzuk, Ama birjinarentzat, etxekoentzat edo beste pertsona batzuentzat. Egurra ez zen osorik erre behar. Gabon gaueko afaria.

19. Urteberriko kopla ezagunen arrastoak I (AKL-007/001)

Urteberri egunean kantatzen zituzten koplen inguruko kontuak.

20. Urteberriko kopla ezagunen arrastoak II (AKL-007/002)

Urteberri egunean kantatzen zituzten koplen inguruko kontuak.

21. Urteberriko kopla-hondarren beste bertsioa (AKL-008/001)

Urteberri egunean kantatzen ziren koplak: "Ur goiena, ur barrena, Urteberri, egun ona...".

22. Satrustegiko San Juan suarekikoa, Josefa Ongaik kontatua (AKL-009/001)

San Juan bezperan sua egiten zen eta honakoa esaten zuten: "Kirrikili matxo, sarna fuera, ogi t’ardo Nafarrora, atso, atso guzi? ipurdiz gora".

23. Satrustegiko San Juan suarekikoa, Jesusa Ongaik kontatua (AKL-009/002)

San Juan bezperan sua egin eta gainetik saltatzeko ohitura. Hauxe esaten zuten: "Kilikilli martxo, sarna fuera, atso guzik ipurdiz gora".

24. Urteberriko koplez eta Errege-eguneko zintzarrotsez zerbait (AKL-009/003)

Urteberriko koplen eta Erregenetako zintzarrotsen inguruko kontuak.

25. Zuhatzuko San Juanetan: sua egin eta "Kirrikillo martxo" (AKL-010/001)

San Juan bezperan suaren gainetik salto egiteko ohitura. zer esaten zuten.

26. Urteberriko koplen hondarrak Zuhatzun (AKL-010/002)

Urteberri egunean eskean ateratakoan kantatzen ziren koplak: "Ur barrena, ur goiena, Urteberri egun ona...".

27. San Juanetako ohiturak Urritzolan (AKL-011/001)

San Juanetako ohiturak Urritzolan.

28. Urritzolako Akatillu iturriaz zerbait (AKL-011/002)

Akatilluko ura begietako minarentzat ona zela esaten zen.

29. Urritzola: Urteberriko koplak-I (AKL-011/003)

Urteberri egunean kopla-kantari irteteko ohitura zuten. Zer kantatzen zuten: "Ur barrena, ur goiena, Urteberri egun ona...".

30. Urritzola: Urteberriko koplak-II (AKL-011/004)

Gabonetan etxerik etxe eskean ateratzen zirenean etxeko andreari zer kantatzen zioten.

31. "Girigiri" hasierako leloa Murginduetan (AKL-012/001)

San Juan bezperan sua egiten zuten, bakoitzak bere etxe atarian. Suaren gainetik salto egin eta hauxe esaten zen: "Girigiri martxa... sarna fuera, ogi ta ardo Nafarrora".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-26

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com